


**BEZEROEKIKO HARREMANAK:**

Gure bazkideekin (parkingetako jabeak) hitz egiteko bilerak egiten saiatuko gara. Etengabeko harremana izango dugu beraiekin asko interesatzen zaizkigulako beraien iradokizunak

→ Arcona Iberica S.A.U enpresa kontaktatuko dugu, Megapark zentru komertzialetan instalatzeko.

→ Grupo kontinental parking enpresa kontaktatuko dugu, Bilbon dituzten hainbat parkingetan instalatzeko.



Gure bezeroekiko harremana zuzena eta kordiala izango da, bezero-arreta oso ona izango da, horretarako gure informatikoa egongo da kekkak erantzuteko eta bezeroak fidelizatuko ditugu hauek pozik mantenduz. Gure web orrialdean bezero-arreta atala ezarriz aparte, foro bat egongo da non bezero bakoitzak bere iritzia jarri ahal izango du eta beraien artean lagundu ahalko dira.

Horretaz aparte egiten diren galdera ohikoei erantzundako atala egongo da, hala nola, non aurkitu dezaketen gure zerbitzua, nola ordaindu...

Denbora batean gure zerbitzua erabiliz edo egun garrantzitsuetan, beherapenak egongo dira eskuragarri bezero guztientzako.

Bestalde, Kotxe Salmenta Etxeekin harreman estua izango dugu, beraiek, haien bezeroei gure ideia saltzeko. Horretarako, saldutako kotxe elektriko bakoitzari dohainik hilabete bateko premium proba eskainiko diegu.

